



# EUSKALERÍAREN YAKINTZA

LITERATURA POPULAR DEL PAIS VASCO

POR

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE



ESPASA-CALPE, S. A.



A.T.V. 40  
32

EUSKALEÑIAREN YAKINTZA  
(LITERATURA POPULAR DEL PAÍS VASCO)

III





M. 2997  
R. 15

# EUSKALÉRIAREN YAKINTZA



(LITERATURA POPULAR DEL PAÍS VASCO)

POR

RESURRECCIÓN MARÍA DE AZKUE

Doctor en Sagrada Teología

Miembro de número de la Real Academia Española

Presidente de la Academia de la Lengua Vasca

IRUGAREN LIBURUA

TERCER TOMO

- I. Atsotitzak.
- II. Esakerak.
- III. Auren izkuntza.
- IV. Ago-korapiloak.
- V. Goitzenak.
- VI. Igarkizunak.

- I. Proverbios.
- II. Modismos.
- III. Lenguaje infantil.
- IV. Trabalenguas.
- V. Sobrenombres.
- VI. Acertijos.

Con fotografías de los pueblos más fecundos en estos datos literarios

ESPASA-CALPE, S. A.

MADRID

Con censura eclesiástica

ES PROPIEDAD

Madrid, 1945

Published in Spain

Talleres tipográficos de la Editorial Espasa-Calpe, S. A.

## IRAKURLEARI

## AL LECTOR

Ona emen irugaŕen liburu onen gaiak. Seitzuk dira: *atsotitzak, esakerak, auŕen izkuntza, ago-korapiloak, goitzenak* eta *igarkizunak*.

Berón edergaŕitxoén beŕi emango ditut orain. Gairik geien eman didaten uri edo irien izantzak dira edergaŕi oriek.

He aquí las materias de este tercer libro. Son seis grupos: *proverbios, modismos, lenguaje infantil, trabalenguas, sobrenombres y acertijos*.

Ahora te daré noticia de sus ilustracioncitas. Son fotografías o retratos de los pueblos que me han suministrado la mayoría de los datos.

- Lenengoa (el primero), Amezketá (G).
- Bigaŕena (el segundo), Aramayona, barrio de Olaeta (A).<sup>6</sup>
- Irugaŕena (el tercero), Arrona (G).
- Laugaŕena (el cuarto), Ataún (9).
- Bostgaŕena (el quinto), Asilo de las Hermanitas de Bilbao.
- Sei ta zarpigaŕena (los números 6 y 7), Hermanitas de San Sebastián.
- Zortzigaŕena (el octavo), Elizondoko eritegia, Hospital de Elizondo (Baxtán).
- Bederatzigaŕena (el noveno), Elorrio (B).
- Amargaŕena (el décimo), Eŕezil (Régil) (G).
- Amaikagaŕena (el undécimo), Lekeitio (B).
- Amabigaŕena (el duodécimo), Legutiano (Villarreal de Alaba).<sup>8</sup>
- Amairugaŕena (el décimotercero), Monáragón (G).
- Amalaugaŕena (el décimocuarto), Markina (B).
- Amabostgaŕena (el décimoquinto), Mundaka (B).
- Amaseigaŕena (el décimosexto), Otxandiano (B).
- Amazarpigaŕena (el décimoséptimo), Zeanuri (B).
- Emezortzigaŕena (el décimooctavo), Zumaya (G).
- Emeretzigaŕena (el décimonono), Arnegi (BN).
- Ogeigaŕena (el vigésimo), Bayona.
- Ogei ta batgaŕena (el vigésimoprimeró), Donibane gavazí (BN).
- Ogei ta bigaŕena (el vigésimosegundo), Atafatze (S).



## LENENGO ATALA

### I. Atsotitzak

MUÑA: I. Beron euskalizenak.—II. Beron erdalizenak.—III. Atsotitz ta esakeren aldea.—IV. Uri batetik besterako atsotitzak.—V. Musikadun atsotitzak.—VI. Bi izkeradun atsotitzak.—VII. Esakuntza amaikideak atsotitzartean sartuta.—VIII. Gure atsotizlariak.—IX. Nire lankideak.—X. Ilik dauden lankideak.—XI. Atsotitz itzuitzaileak.—XII. Gure atsotizlari egungoak.—XIII. Liburu onetako atsotitz guzien yatorfia.—XIV. Zereगतिक banatu diran sailka atsotitz auek.

I. Izen asko dituzte gure artean yakingai auek, or emenka bareatuak guziak; eta bat ere ez, orainarte beintzat, erian oso sustraitua. Bizkaieraz *esakune*. Beñola *supita* ere esaten omenzan. *Anbiolako supitak egiak* dirakurgu *Refranes* y *Sentencias*-en. Idazle batek, *Mogelek*, *esakune*-ren gainera *esa-*

## PRIMERA PARTE

### I. Proverbios

SUMARIO: I. Sus nombres vascos.—II. Sus nombres castellanos.—III. Diferencia entre proverbios y modismos.—IV. Proverbios que pasan de un pueblo a otro.—V. Proverbios provistos de música.—VI. Proverbios bilingües.—VII. Frases rimadas incluidas entre proverbios.—VIII. Nuestros paremiólogos.—IX. Mis colaboradores.—X. Colaboradores ya fallecidos.—XI. Traductores de proverbios.—XII. Nuestros paremiólogos de hoy.—XIII. Origen de todos los proverbios de este libro.—XIV. Por qué se han distribuido por grupos estos proverbios.

I. Estos datos tienen muchos nombres entre nosotros, diseminados todos en varios lugares, y ninguno de ellos —por lo menos, hasta ahora— bien arraigado en el pueblo. En bizkaíno, *esakune*. Antiguamente parece que también se decía *supita*. «Proverbios de tiempo pasado, verdades», leemos en *Refranes* y



*kuntza* ere erabili du; baina izen au erderazko *frase*-ri dagokio.

Gipuzkeraz eta napaferaz *esaera zañak* da izenik erabiliena. *Eñanera zañak* eta *esanerak* ere nortzukbait erabili dituzte.

Ufengo atalaren itzaufetxoan azalduko da zein dan egokiagoa: *esanera* ala *esaera* ta *esakera*.

Oihenartek bere *esakune-piñolari* izentzat *Atsotitzak* edo *refraua*k (1) ezafi zion.

Oihenartek itz au *atsotitz* ezote zuen erderatik artu! Hona emen Espainiako atsotizlari andi batek diona: «*Zaar* ori daukate buruan yakintsu izendunak, *esakuneai* iri egiteko *atsoen esakerak* gaitzizentzat ematen dietenean.»

(Rodríguez Marín, *Más de veintidós mil refranes castellanos*, etc., pág. 29.)

II. Españeraz ezomendira berdinak *refrán*, *adagio* ta *proverbio*. Sbarbi zeritzaion apaiz yakintsu batek zion: «*Esakizuna* edo lagunabañekoa da edo ezta. Lagunabañekoa bada, *refrán* du izena; lagunabañekoa ezpada, *adagio* ta *proverbio*. *Refrán* geienetan alai da; *adagio*, irakasteduna; *proverbio*, gertatua.»

(1) ¿Itz onen u ez oteda n-ren uta bat? ¿*Refrauak*, *refranak*-en ordeztu agertua?

*sentencias*. Un escritor —Moguel— se ha valido también de *esakuntza*, además de *esakune* (véase el Diccionario); pero este nombre pertenece al vocablo español «frase».

En guipuzcoano y en navarro el nombre más usado es *esaera zañak* (viejos dichos). Algunos se han valido también de *eñanera zañak* y de *esanerak*.

En el prologuito de la siguiente parte (al tratar de los modismos) se explicará cuál es el más propio: *esanera* o *esaera* y *esakera*.

Oihenart, a su colección de proverbios puso por nombre *Atsotitzak* (literal: palabras de ancianas) o *refraua*k (1).

¿No habrá Oihenart tomado del español esta palabra *atsotitz*? He aquí lo que dice un gran paremiólogo español: «A esa *vieja* se refieren los sabios al uso cuando se burlan de los refranes llamándolos, despectivamente, *dichos de viejas*.»

II. Parece que en español no son lo mismo *refrán*, *adagio* y *proverbio*. Un sacerdote sabio llamado Sbarbi dijo: «El dicho, o es vulgar, o no. Si lo primero, toma el nombre de *refrán*; si lo segundo, el de *adagio* o *proverbio*. El *refrán* es, por lo regular, festivo; el *adagio*, doctrinal; el *proverbio*, histórico.»

(1) La u de esta palabra ¿no será, acaso, errata de n? ¿*Refrauak* impreso, en vez de *Refranak*?



Amezketta (Guipuzkoa)

Guk, naiz dirala alai naiz ilunak, irakastedun naiz ainbageak, gertatuak naiz gertagariak, guziaz izen bat ematen diegu.

III. Atsotitz ta esakera-arazo onetan nolabait lenagoko erdaldu-nak baiño goraxeago gaude egungo euskaldunok. Guk, Bizkaiko uri ta basauri batzuetan beintzat, *esakune* ta *esakera* (1) beti berezten ditugu. Erdaldunen artean ordea ez, lenago beintzat, Rodriguez Marinek dionez: «Atsotitz ta esakera berezi

Nosotros, ya se trate de alegres o tristes, ya de doctrinales o sin doctrina, ya de sucedidos o de sucedibles, a todos damos un nombre.

III. En este asunto de proverbios y modismos, los vascos de hoy estamos más altos que los castellanos de otro tiempo. Nosotros, por lo menos, en algunas villas y aldeas de Bizcaya, distinguimos siempre *proverbio* y *modismo* (1). Mas entre los castellanos, no; por lo menos, en tiempos atrás, según dice Rodríguez

(1) Bizkaian *esera* baino geiago entzuten da *esakera*.

(1) En Bizcaya más que *esera* se oye (por modismos) *esakera*.



bear dira, gure aintzinako biltzaileak beti berezi etzituen ezkerro eta beren sortak egiten nási ere egin ziztuzten. Atsotitzak, eskututxoan bada ere, irakaspen bat du: esaerak ordea, tropo bat baizik ez.»

(Discurso leído ante la Real Academia Sevillana de Buenas Letras el día 8 de diciembre de 1895, pág. 20, lín. 2.)

IV. Bi atsotizlari auek baiño askozaz lenagoko batek, Salamanca Unibersidadean maisu zan Gonzalo Correas-ek beste irakaspen askoren artean ongi datorkigun auxe eman zuen: «Baraonen etxe bakoitzean lapur bat». Atsotitz-ostean dio: «Amaiki au duten toki guzietan berdin esaten da».

Eta geroago dakar atsotitz au: «Malagonen etxe bakoitzean lapur bat». Rodriguez Marinek ere gutierrez onelako bat badu: «Zaragozako Magallonen etxe bakoitzean lapur bat».

Gure atsotitz batzuetan auxe berau gertatzen zaigu: «Bergara, ikusi ta igara». (Garibayk dio: «Bergara, zeñatu ta igara».) Onen antzera sortua da: «Deba ta Mendaro, eldu ta igara».

*Refranes y Sentencias* deritzaion liburuan dakusku: «Albia, deunga duztien abia». Ta gero batu dut nik: «Mungia, lapur guztien abia». Mungian ta bere uri-auzoetan *Plentsia* dala esaten dute *lapur guztien abia*.

Marín: «De lo que sí conviene distinguir al refrán es del modismo, ya que no siempre lo distinguieron nuestros antiguos colectores, y aun lo mezclaban en sus colecciones. El refrán contiene, más o menos veladamente, una enseñanza; el modismo, no más que un tropo.»

IV. Un paremiólogo muy anterior a estos dos, Gonzalo Correas, catedrático que fué en la Universidad de Salamanca, entre otras muchas enseñanzas dió ésta, que nos cuadra bien. Después de citar el proverbio «En Baraón, en cada casa un ladrón», añade: «En todos los lugares de este consonante dicen lo mismo».

Y más tarde expone este proverbio: «En Malagón, en cada casa un ladrón». También Rodríguez Marín tiene, por lo menos, uno semejante: «En Magallón (Zaragoza), en cada casa un ladrón».

Esto mismo nos sucede a nosotros en algunos proverbios nuestros: «Vergara, ver y pasar». (Garibay dice: «Vergara, santiguete y pasa».) A semejanza suya, brotó: «Deva y Mendaro, llegar y pasar».

En el libro llamado *Refranes y sentencias*, vemos: «Albia, nido de todos los malvados». Y después he recogido yo: «Munguía, nido de todos los ladrones». En Munguía y en sus barrios dicen que es «Plencia el nido

Beste au ere bai: «Kolazino ta Bedia, lapur guztien abia».

Azken-atsotitz au Lemonan yakin nuen. Eta beste bietako «deunga duztien eta lapur guztien» orien antzera, Lemonañak atsotitz aroxko auxe egin dute berentzat: «Lemona, aingeru guztien egoa». Garibairen atsotitz bat eta Bakio-ondoan neronek ikasiriko bat ere alkañen antzekoak dira. Lenengoa: «Bakio, ura akio, bai al baakio». Bigañena: «Bakio, aparta akio, al baakio».

V. Len aipaturiko atsotizlari andi Sbarbik aldiroko batean lan au argitaratu zuan: *Musika Atsotitzkindean*. Eta Rodríguez Marinek (1) dionez, Galician au kantatzen dute:

«Ezta munduan abestirik  
esakune bat eztuenik».

Guk kantatzen diran ipuinak ere badauzkagu ta ezta añañari euskaldunen artean musikadun atsotitzak entzutea. Nire *Cancionero popular vasco*-ren itzaurean (22, 23 ta 24-gañen orialdeetan) eñiak kantatzen dituen iru ipuin ikus ditzake irakurleak: *Goizean Parisen Bizkaikoa*, *Pedro norekin napaña ta leku askotako Akeña ikusi degu*.

de todos los ladrones». También este otro: «Colación de Bedia, nido de todos los ladrones».

Este último proverbio lo aprendí en Lemona (B). Y a semejanza de esos «de todos los malvados y de todos los ladrones», los lemoneses han hecho para sí este altisonante proverbio: «Lemona, ala de todos los ángeles». Son también semejantes entre sí un proverbio de Garibay y otro aprendido por mí junto a Munguía (B). El primero: «Bakio, deshazte de él si pudieres». El segundo: «Bakio, apártate de él, si pudieres».

V. El gran paremiólogo antes citado, Sbarbi, publicó en una revista este trabajo: *La música en la Paremiología*. Y, como dice Rodríguez Marín (1), en Galicia hay un cantar que dice:

«No hay cantiga no mundo  
que non teña suo refrán».

Nosotros tenemos hasta cuentos cantábiles, y no es extraño que entre los vascos se oigan proverbios provistos de música. El lector puede ver en el prólogo de mi *Cancionero popular vasco* (págs. 22, 23 y 24) tres cuentos que canta el pueblo: *A la mañana, en Paris*, que es de Bizcaya; *Pedro, ¿con quién?*, navarro, y *Hemos visto al chivo*, que se canta en muchos lugares.

(1) Discurso leído ante la Real Academia sevillana, XXII, 3.ª nota.



Bi mila ta bederatzireun atsotitz auetarik zeintzuk kantatzen diran yakiteko, banan aztertzea izugarizko lana izango luke Itzaure au egiten ari dan onek. Atsotitzak argitaratzean, au edo bestea musikadunak dirala buruak eman dezaionean, orduan, erakutsiko ditu.

Eredutzat hona emen batzuk.

Len aipaturiko abesti-lan ofen 666-gaŕen orialdean datza esakune au asieratzat duen kanta polit bat: «Asiak egina dirudi, eginak uregoŕia». Beronen musika lenengo atal onen geigafian datza. An badira beste sei atsotitz musikadun ere.

VI. *Bi izkeradun atsotitzak.*—Oso guti dira nik dazauzkidan onelako atsotitzak. Lenengo zortzirak Urquijo atsotizlariaren bidez eldu zaizkit ezaguerara.

El examinar uno por uno estos dos mil novecientos proverbios, para saber cuáles se cantan de entre ellos, sería una labor espantosa para el que está trazando las líneas de este prólogo. Al publicar los proverbios, cuando le ocurra que este o el otro tiene melodía, entonces los ha de mostrar.

Aquí vayan unos, como muestra.

En la página 666 del *Cancionero* antes citado hay una linda canción que tiene por comienzo este proverbio: «Lo comenzado parece hecho; lo hecho (parece) oro». Su música yace en el apéndice de esta primera parte. Hay también allí otros seis proverbios cantábiles.

VI. *Proverbios bilingües.*—Son muy pocos los proverbios que conozco de esta clase. Los ocho primeros han llegado a mi conocimiento por medio del paremiólogo vasco Urquijo.

1. *Arraz gorri* de Castilla calentar te ha la costilla (Garibay, Cc. 79, 4).
2. *Gox gorri* de Navarra calentar te ha la zamarra (Garibay, Cc. 79, XLIX).
3. San Simón y Juda *negua eldu da* (Maestro Correas).
4. Sardina que el gato lleva *galdua da* (Lope de Isasti).
5. Estudiante de *sasirik-sasi, asko yan da gutxi ikasi* (G-t).
6. Más vale migaja de rey que *zatico* de caballero (Lope de Isasti).
7. Del pan de mi compadre gran *zatico* a mi ahijado (Lope de Isasti).
8. Romero hito saca *zatico*.
9. Gaŕnean *gallo*, barnean *haŕo* (Salguis, var. del núm. 141).
10. A mutil, yan dok opil?—A neska, yan don *pesca?* (B-olaeta).
11. Donnez moi un *zots* pour *zirihé l'aroltz* (Landerretche, 167).
12. Justo y cabal, *luze adiña zabal* (AN-laŕ, G-ure).
13. *Señora*, ezpedi joan (así con j) *iñora* (B-mu).
14. *Sí, señor*, gure etsean ezta *bizi iñor* (B-mu).
15. Bai andrea ta *si*, ezkara guztiok *bardin bizi* (B-l).
16. Ez jauna ta *no*, ondo *bizi da* Mariano (B-l).
17. Asto txikia beti *pollino* (BN-s).

18. *Doministiku sñlu y paz* bizia luze ta beti ondraz (B-der). Var. de B-elan: *Doministiku salu ta paz, on da osasuna bakeagar.*
19. Enero, febrero, marzo, abril, eñotako potxotxo dantzan dabil (G-lazk) con sus variantes.
20. *Eskeñik asko, palabra de vasco* (G-nñ).
21. *Prantzes, toma la cabes. Baztan, toma la buztan; probintziario tonto ardiko trontzo* (G-at-lazk).
22. *Gloria, gure amak ari lodia; Patri; Anizko Petri; Filio, azak on dik olio; e nunc e semper, obe sardinak baiño bi eper* (AN-b).
23. *Gloria Patri et Filio, gure katuak txilio; in secula seculorum Amen, katurik eztago emen* (B-l).
24. *Goñontz ta Olano, biek hermano; Goñontzen artzeko, bere burua galtzeko* (AN-ulz).
25. ¡Jesús! *Oremus, txakufaren putzak artuizuz* (B-l).
26. *Jito, mala casta, ipurdian pasta, geñian txintxa* (AN-lañ).
27. *Iru ta iru sei, iru beñeratzi, amar emeretzzi ta bat ogei; tocino ta biskaino irurogei* (B-dima).
28. *¿Qué dijo el cura de Obanos? Bebamos. ¿El de Eris? Edan zagun beñiz. ¿El de Puente? Edan zagun fuerte ¿El de Larraga? Edan zagun bañabaña* (AN-ulz).
29. *Per omnia saecula saeculorum Amen, berori or da ni emen* (B-landio).
30. *Requiem aeternam beti tabernan, et lux perpetua beti katua* (B-l).
31. *Gaizkiñe ta sorgiñe libera nos Domine. Diablo y bruja libera nos Domine* (B-basauri).
32. *Requiem aeternam, sar giten tabernan; dona eis Domine, beti hoñu huntza bagine!, et lux perpetua, hauxe da apetitua! luceat eis, requiescant in pace ez gituk beti hola ase: Amen yan ere dituk zenbeit ahamen* (L).
33. *Sursum corda, atzoko dirua zor da* (G-añ).

VII. *Euskaleñiaren Yakintza* onen lenengo liburuan (Itzaulearen 16-gañen orñaldean) lanaren betea azaltzean, itz auek ofetarako ezafi ziran: «*Irugañenean esakune edo atsotitzak, esakerak, esakuntza amaikideak... eta abar* (azalduko dira)».

Irugañen itzaule au egiten asiarte, erderazko esakune-libururik, arduraz andiz beintzat, eznuen bat ere iñoiz irakuri. Len aipatusk dau den Sbarbi, Correas ta Rodriguez Marinen lan oriek irakurtean ikusi dut eñez eta ugari dirala beron liburu edefetan *esakuntza amaikideak; baña guziak edo atsotitzat edo esa-*

VII. Al exponer en el primer tomo de esta LITERATURA POPULAR DEL PAÍS VASCO el contenido de la obra (pág. 16 del prólogo), se pusieron, al efecto, estas palabras: «En el tercero, *proverbios, modismos, frases rimadas... etc.* (se expondrán)».

Nunca, hasta dar comienzo a este tercer prólogo, me había dedicado a leer libros de refranes de lengua extraña. Al escudriñar las obras antes citadas de Sbarbi, Correas y Rodriguez Marín, he visto que en sus hermosos libros hay una gran abundancia de frases rimadas; pero presentadas todas ellas como prover-



keratzat agertuak. Eta nik ere beste onenbeste egin dut aspaldi luzean bilduak neuzkan amaikide oriezaz. Len aipatu ditudan itz eder Rodriguez Marinena: «El refrán contiene, más o menos veladamente, una enseñanza; el modismo, no más que un tropo», irakurri nituenean, irakaspandun esakuntzak atsotitz artera eramán nituen; beste guziak esakera-artera. Onegatik liburu onen irugañen atala *auren izkuntza* agertzekoa izango da. Laugañenean *akorapiloak* ezagutaraziko dira. Bostgañenean *asmuzko* ta *aldartezko itz estaliak* edo *euskalgaitza* eta gainera *igarkizunak*.

VIII. Gure atsotizlari-artean ezagunenak *Refranes y Sentencias*-en batzailea ta Oihenart dira. Bataren ta bestearen gaiak, geienak beintzat, gauzak zekañena zalako, Iztegian sartuak izan ziran. Liburu onetan, ordea, eñiarenganik ikasitakoen antzeko bat edo bestetxori bai, besteri etzaio atea zabaldu; ta beti biltzailearen izena aldameñean duela. Atsotizlari auezaz gainera baditugu lan onetan ari izan diran beste batzuk ere. Bizkaieraz: Garibay, Mogel, Uriarte ta Segura. Gipuzkeraz: Lope de Isasti ta Iturriaga. Beste euskalkietan lan au egin dutenak hona emen: Bela, Beltran de Salguis, Darthayet, Duvoisin, Inchauspe, Landeretche.

bios o modismos. Otro tanto he hecho yo con esas (frases) rimadas que hacía mucho tiempo atrás las tenía recogidas. Cuando leí las hermosas palabras antes citadas de Rodríguez Marín: «El refrán contiene, más o menos veladamente, una enseñanza; el modismo, no más que un tropo», metí entre los proverbios las frases que contienen enseñanza; todas las demás, entre modismos. Por esta razón, la tercera parte de este libro se destinará a exponer el *lenguaje infantil*. En la cuarta se darán a conocer *trabalenguas*. En la quinta, *eufemismos ingeniosos y humorísticos o jerigonza vasca*, y, además, *acertijos*.

VIII. Entre nuestros paremiólogos, los más conocidos son el autor de *Refranes y Sentencias* y Oihenart. La mayor parte de los proverbios de uno y otro fueron introducidos, como era natural, en el Diccionario. Mas en este libro, a alguno que otro que tenga semejanza con los aprendidos del pueblo, sí; a ningún otro se le ha abierto la puerta, y siempre teniendo al lado el nombre del colector. Además de estos paremiólogos, tenemos también algunos otros que se han ocupado en esta labor. En bizkaíno: Garibay, Moguel, Uriarte y Segura. En guipuzcoano, Lope de Isasti e Iturriaga. He aquí los que en otros dialectos vascos han hecho este trabajo: Bela, Beltrán de Salguis, Darthayet, Duvoisin, Inchauspe, Landerretche.

*Euskalerrriaren Alde* deritzaion aldirokoan, I, 459..., Jose Manterolak idatzitako atsotitz asko ageri dira. Geien geienak beintzat erderatikoak diralako, eztugu bakar bat ere aintzat artu. Gure eñiarenak zeintzuk diran yakinezkerok, bai. Bayona-aldeko euskalkietan Beltran de Salguis, Inchauspe, Duvoisin, Darthayet, Bela, Elizanburu ta Landeretxe.

Oso guti dira bizirik dauzkagun atsotizlariak: Urquijo, Intza, Irigaray.

IX. *Nire lankideak*.—Nire amata beste berogei bat atso-agure izan ditut lagun, banan banan bilduriko atsotizetan. Naiz ipuin naiz kantaren bat ikasteen beti artzen izan dut nik irakaslearen izena. Beste yakingaietan ordea (itzak, atsotitz ta esakerak, agokorapiloak, auren izkuntza ta yolasak... eta abar) irakaslearen izenaren orde beren euskalki ta sorteriarena artu izan ditut beti.

Lankide aukerak belariz bezala, len aipaturiko atsotizlariak begiz izan ditut lankide, beren idazkiak irakuriz. Atsotizlari aukerak eztituzte, Oihenartek eta *Refranes y Sentencias* egileak bezala, eztituzte beren esakunak artarako liburuetan argitaratu. Oregatik Euskaleñiaren Yakintza onetan, lankidearen izena beti aipatuz, beren gai bakoitzari (egoki zirudianari beintzat) leku egin zaio.

En la revista *Euskalerrriaren Alde*, tomo I, página 459, aparecen muchos proverbios escritos por José Manterola. Como la inmensa mayoría de ellos están tomados del castellano, ni uno sólo hemos aceptado. Otra cosa sería si supiéramos cuáles de ellos son de nuestro pueblo. En los dialectos vascos de hacia Bayona, Beltrán de Salguis, Inchauspe, Duvoisin, Darthayet, Bela, Elizanburu y Landerretche.

Son muy pocos los paremiólogos nuestros hoy vivientes: Urquijo, Intza, Irigaray.

IX. *Mis colaboradores*.—Mi madre y unos cuarenta ancianos más han sido mis ayudantes en los proverbios, recogidos uno por uno. Tratándose de cuentos o cantos, anotaba yo siempre el nombre del maestro en cada enseñanza suya. En cambio, tratándose de otros datos (vocablos, proverbios y modismos, trabalenguas, lenguaje y juegos de niños, etc.), en vez del nombre del maestro tomaba yo siempre nota de su dialecto y del lugar de su nacimiento.

Así como estos colaboradores lo han sido de oído, los antes mencionados paremiólogos lo son oculares, leyendo sus escritos. Estos paremiólogos no han publicado sus proverbios en libros especiales, como Oihenart y el autor de *Refranes y Sentencias*. Por esa razón, en esta obra han sido admitidos cada uno de sus datos (por lo menos, los más interesantes), mencionando siempre el



Beste nolabait ere erakutsi nai nuke berontzako esker ona. Irugañen liburu onetan lenengo bietako edergariak bezelakoan orde, lankide andienen izantz edo eretratuak azalduko dira, idoro al izatekoak beintzat.

X. *Itik dauden lankideak.*—Garibay. 1533-gaiaen urteko Martiaren 9-an yaio zan Esteban Garibay Zamañloa, Añasaten. Urquijok bere *El refranero vasco* deritzaion liburuan, Garibayren bizitzako gertaera ta burutiko lanen beñi asko eza-gutarazi dizkigu.

Beste lan andi batzuen artean euskerazko bi atsotitz-piño bildu zituen Garibayk: eta batzuk eta besteak zeatz aztertu dizkigu Urquijo atsotizlariak.

nombre del colaborador. De alguna otra manera quisiera también expresar mi gratitud hacia ellos. En este tercer tomo, en vez de ilustraciones semejantes a las de los dos primeros, se expondrán fotografías de los colaboradores más señalados, siempre que puedan ser hallados.

X. *Colaboradores ya fallecidos.* Nació Esteban de Garibay Zamañloa a 9 de marzo de 1533, en Mondragón. Muchos sucesos de la vida de Garibay y noticias de sus trabajos mentales nos ha dado a conocer don Julio de Urquijo en el libro intitulado *El refranero vasco*.

Entre muchos otros grandes trabajos, llevó Garibay a cabo dos pequeñas colecciones de proverbios vascos, y unos y otros han sido exactamente examinados por el paremiólogo Urquijo.

#### MOGUEL (JUAN ANTONIO) (1745-1804)

Xemeingo pañoku zala *Peru Abarca* deritzaion liburuan 84 atsotitz sartu zituen, geienak (irurogei ta zazpi) Bizkaierazkoak. Besteak (amazazpi) Oihenartenak dira.

Siendo párroco de Jemein (Markina, B), introdujo en el libro llamado *Peru Abarca* ochenta y cuatro proverbios; los más (sesenta y siete), del dialecto bizkaíno. Los demás (diecisiete) son de Oihenart.

#### URIARTE

Añigoñagako seme Jose A. Uriartek, Frantziskotar zala, eun ta lau atsotitz Lekeitio-ondoan bildu zi-

El hijo de Arrigorriaga (B) José A. Uriarte, siendo religioso franciscano, recogió ciento cuatro prover-



tuen. Berogei bat urte geroago, 1899-gaíenean *Euskalzale* zeritzaion asterokoan argitaratuak izan ziran.

Gauza egokia litzate euskalari onen eta beronen antzera lan irakurgariak egindako euskalari guzien bizitza-idazkia *Euskaltzaindiaren aldirokoan* len bai len argitaratzea.

bios en las inmediaciones de Lekeitio. Como unos cuarenta años más tarde, el de 1899, fueron publicados en el semanario llamado *Euskalzale*.

Muy propio sería que en la *Revista de la Academia de la Lengua Vasca* saliera cuanto antes a la luz la biografía de este euskarólogo, como de todos los demás que hayan producido notables trabajos.

### SEGURA

Oñatiko seme Francisco Antonio Justo Segura Etxebarria 1808-gaíen urteko garoilean yaio ta 1894-gaíenean Oñatin berean il zan. Gizon zeatz, zintzo, buru ta biotz andikoa izan zan beti. Oñatiko Unibersidadean egin zituen lege-gizon izateko ikaste guziak; eta urte askotan izan zan latin eta efetorika irakasle Bergarako Eíege-Seminarioan lenik eta bere uriko Institutoan gero. Euskalzale ta euskalari ona ere bazan. Larramendi ta Aizkibelen Iztegiak sakon aztertu ta berak eginiko oar egoki asko irakuriak dauzkat, bai eíiaren atsotitz ta esakera batzuk ere. Nire Iztegian onelako gai askoren aldamenen izki aukeragerei dira: F. Seg. (Francisco Segura). Iru-gaíen liburu onen ofi-artean pozik ezagutaraziko nuke bere izantza, beste askorena bezala. Orainarte ezta ageri.

El hijo de Oñate Francisco Antonio Justo Segura Echevarría nació en septiembre de 1808 y murió en Oñate mismo, en 1894. Hombre exacto, fino, fué siempre de gran capacidad y buen corazón. Todos los estudios de su carrera de jurisperito los hizo en la Universidad de Oñate, y fué muchos años profesor de Latín y Retórica; primero, en el Real Seminario de Bergara, y después, en el Instituto de su villa natal. Era también buen vascófilo y vascólogo. Examinó profundamente los Diccionarios de Larramendi y Aizkibel. Muchas oportunas advertencias tuyas las tengo leídas, como también algunos proverbios y modismos populares. En mi Diccionario, al lado de muchos datos, así aparecen estas sílabas: F. Seg. (Francisco Segura). Con mucho gusto daría a conocer su retrato entre las hojas de este tercer libro, como el de muchos otros. Hasta ahora, no aparece.

## LOPE DE ISASTI

Lezoko apaiz zala idatzi zuen *Compendio historial de Guipúzcoa* deritzaion liburua eta an 85 atsotitz ezagutarazi dizkigu. EUSKAL-ÉRIAREN YAKINTZA onen lenengo liburuan, 391-gaíen orialdean, lenengo aldiz argitaratua izan da beronen beste lan eder bat, erderazkoa: *Euskaleñiko Sorginak*.

Siendo sacerdote de Lezo, escribió el libro llamado *Compendio historial de Guipúzcoa*, y allí nos ha dado a conocer 85 proverbios. En el primer tomo de esta LITERATURA POPULAR DEL PAÍS VASCO, pág. 391, ha sido publicado por primera vez otro hermoso trabajo suyo que tiene por título *Maléficas de Cantabria*.

## BELA (1586-1667)

45 dira Belak bildu ta adiskide batek, Urquijok, eskuratu dizkidan atsotitzak. Frantsesez itzuliak dira guziak eta guziak ez ongi. Hona bat. Saraitzun nik bildutako: «Aseak gosea ezin ikus», Belak, «aseak gosea eztakusa» idatzi-beaíean, «assec gosse ezta koussa» dakar eta frantsesez: «Il ne faut être ni rassassie ni affamé» (ezta egon bear-ez asea ez gosetua). Bere 45 atsotitzetarik ogei bat baizik eztira liburu onetan ageri izango.

Son 45 los proverbios que, recogidos por Bela, me los ha facilitado un amigo, Urquijo. Todos están traducidos al francés, y no todos bien. Aquí va uno. El proverbio recogido por mí en Salazar: «El harto no puede ver al hambriento», Bela, en vez de escribir *aseak gosea eztakusa*, «el harto no ve al hambriento», lo trae así: *assec gosse ezta koussa*, y traduce diciendo: «No conviene estar ni harto ni hambriento». De sus 45 proverbios, sólo unos 20 saldrán a luz en este libro.

## BELTRÁN DE SALGUIS

Zuberoko irixko batean, Salgiz-en, XVI-gaíen mendean yaio zan atsotizlari au. Beronen beñiak Jean de Jaurgainek eman dizkigu. *Eusko-Ikaskuntzaren* aldirokoan II-697-an irakur ditzake. Oihenarteren aidea

Este paremiólogo nació en una aldea de Zuberoa, en Salguiz, en el siglo XVI. Noticias suyas nos ha dado Jean de Jaurgain. Pueden leerse en la *Revista Int. de Estudios Vascos*, II, 697. Era pariente de Oihenart,



zan, zartxoangoa; ta bere atsotitz-artean Salguisko asko sartu zituen. Urquijok guziak aztertuz dioskunez, 196 atsotitzetatik 95 artu zituen Oihenartek. Salguis-ek izen au eman zion bere lan edefari: *Euskaldun-en erran zaharrac*, Beltran Salguisen arthaz bilduac.

algo anterior, y en sus refranes metió muchos proverbios de Salguis. Según nos dice Urquijo, después de analizarlos todos, de sus 196 proverbios tomó Oihenart 95. Salguis dió este nombre a su hermoso trabajo: *Dichos viejos de los vascos recogidos por diligencia de Beltrán Salguis*.

#### DARTHAYET

Haspañengo seme Pierre Darthayet 1822-ko Agoñilaren 20-an yaio zan. 24 urte zituela apaiz egin eta Bayonako Andres-gurenen parokian lankide (koadjutore) izendatu zuten. 1870-gařen urteko Maiatzean il zan. 1867-gařen urtean frantses ta euskerazko liburu oso polit bat argitaratu zuen.

*Guidaria edo escu-liburua frantsesez eta escuaraz du lan onek izena. Bost atal ditu. Laugañenean Escualdunen zuhur-itzac izena emanaz 124 atsotitz dakarzki. Irutatik bi Oihenarten liburutik artu zituen, yatorfia aipatu bage. Berberau egin zuen bostgařen atalean. Escuarazco cantu berechiac, escual herrico sei mintzaitan artuac du atal onek izena. Artu zituen, bai; haiña etzuen ez Ipañagife ez beste olerkaririk aipatu. Oihenarten atsotitzetatik bañeneratu zituen 84 esakuneak, noizean bein nolabait aldatuz dakarzki ta ez beti gaizki. Oihenartek dio 221-gařenean (Salguis-en 50-gařena da) haur nigur egin nahiak Aitari bizarra thira. Eta*

Pierre Darthayet, hijo de Azparrren, nació en 20 de agosto de 1822. Ordenado sacerdote a los veinticuatro años, le nombraron coadjutor de la parroquia de San Andrés, en Bayona. Murió en mayo de 1870. Publicó en 1867 un muy lindo libro, escrito en francés y vascuence.

Este trabajo tiene por título *Guía o Libro manual en francés y en vascuence*. Tiene cinco partes. En la cuarta, y con el título de «Proverbios (liter.: palabras de cuerdos) de los vascos», trae 124. Los dos tercios son del libro de Oihenart, sin mencionar el origen. Esto mismo hizo en la quinta parte. Tiene esta parte por título *Cantos especiales vascos tomados en los seis dialectos del País Vasco*. Los tomó, sí; pero no mencionó ni a Iparraguirre ni a ningún otro poeta. Los 84 proverbios que metió en su obra de los refranes de Oihenart, de vez en cuando los modifica algún tanto. Oihenart, en su 221 (que es el número 50 de Salguis), dice *haur nigur, egin nahiak...* por

Darthayetek bere 76-gaínean *haur nigargaleak...* eta abar. Oihenartek 381-an *otorde*, Darthayetek *ogi-orde* 4-an; ark *lagun elhetari* 291-an, onek 80-an *lagun elhestari*; ark *eguraldi* 199-an, onek 10-an *eder-aldi*; ark 246-an *emaitzak*, onek 84-an *dohainak*. Oihenartek ederki 242-an: «Hitz ezetik mihia zaurtzen ezetik». Darthayetek 77-an: «Mihia hitz eztiak zaurtzen ezetik». Bi aldiz maisuaren atsotitz bat bikoiztu zuen: «Goiz goñiak dakarke uri, añats-goñiak eguraldi» Oihenart-en 199; Darthayetek *eguraldi eder-aldituz* 9 ta 10 gaínean sartu zuen atsotitz au. Oihenartek 438-an eta Darthayetek 107 ta 108-an: «Zori onari idekok athea (eta) gaitzari agoko beha».

«El niño llorón tira de la barba al padre». Y Darthayet, en su 76, dice *haur nigargaleak...*, etc. Oihenart, en el 381, dice *otorde*. Darthayet, en el 4, *ogi-orde*. Aquél, *lagun elhetari* (número 291); éste, en el 80, *lagun elhestari*. Aquél, *eguraldi*, en 199; éste, en el 10, *eder-aldi*. Aquél, en el 264, *emaitzak* (dádivas); éste, *dohainak*, en el 84. Oihenart, muy bien, en el 242: «Ninguna palabra dulce hiere la lengua». Darthayet, en el 77: «La lengua no la suele herir la palabra dulce». Dos veces duplicó un proverbio del maestro. «Mañana roja, trae lluvia; tarde arrebolada, buen tiempo», de Oihenart, 199, los introdujo Darthayet en sus 9 y 10, alterando *eguraldi* en *eder-aldi*. Oihenart, en su 438, y Darthayet, en sus 107 y 108, dicen: «A la buena suerte ábrele la puerta (y) a la mala estáte atento».

#### DUVOISIN (1810-1891)

Euskalari argi ta langile andi onek atsotitzak ugari bildu zituen. Geienak Iruñako Aldiroko *Euskara*-ren orietan izan ziran argitaratuak. Aldiroko aren bigaíen urteko 351-gaíen orialdean *yuraituko da* idatzi zuten eta añezkero ezta ageri, guk dakigula, yaraitze hura.

Este ilustre euskerálogo y gran trabajador recogió muchísimos proverbios. Los más fueron publicados en la revista *Euskara*, de Pamplona. En la página 351 de su segundo año pusieron al fin *se continuará*, y posteriormente, que sepamos, aquella continuación no aparece.

#### ELISSAMBURU

Bere eskutiko 217 atsotitz adiskide batek (Elissalde gure euskaltzainak) eskuratuak ditut.

Un amigo (nuestro académico Elissalde) me ha proporcionado 217 proverbios suyos.



Beretarik 46 baizik eztira liburu onetan aterako. Beste guziak Oihenarten atsotitz-artean argia ikusi zuten.

De ellos, sólo 46 saldrán en este libro. Todos los demás vieron la luz entre los refranes de Oihenart.

#### INCHAUSPE

Zuberotar euskalari argitsu au Sunharretan (Athañatze-ondoan) 1815-ko XI-ko 5-an yaio zan. 1840-gañean apaiz eginda Bayonako eritegian kapelau izan zan; 1855-an deduzko kalondxe, 1864-an benetakako kanonigu.

Bayonako Vicario General izatera ere eldu zan. 1902-gañen urtean il zan, Athañatze-ondoko beste basauritxo batean. 119 atsotitz eder bildu zituen. Guziak nire iztegian argitaratuak izan ziran eta orain liburu onetan beñiz argitaratuak izango dira.

Este ilustre euskerálogo suletino nació en Sunharreta (junto a Tardets), el 5 de noviembre de 1815. Ordenado sacerdote en 1840, fué capellán del hospital de Bayona; en 1855, canónigo de honor, y en 1864, canónigo titular.

Llegó también a ser Vicario general de Bayona. Murió en el año 1902, en otra aldea de las inmediaciones de Tardets. Recogió 119 hermosos proverbios. Todos fueron publicados en mi Diccionario y ahora saldrán de nuevo a luz en este libro.

#### LANDERRETCHÉ

Busunaritzen (Benapañoan) 1842-gañen urtean yaio zan. Bere beñi batzuk *Euskaltzaindiaren aldirokoan* dautza. Ezpeletan il zan, 1930-gañen urtean. 1901-gañen urtean, Zuberoko Ligin igaro nuen udan, beste lankide batzuren artean Landerretxe apaiz ona ere izan nuen. Orduan ikasi nizkion, urte asko geroago, euskaltzain zala, argitaratuko zituen atsotitz asko eta Iztegian agertuak izan ziran. Irureundik gora dira *Euskera* aldirokoan argitaratu zituen atsotitzak. Itzauré onen asieran, gure esakune artean melodidu-

Nació en Busunaritz (Baja Navarra), en 1842. Algunas noticias tuyas constan en la *Revista de la Academia de la Lengua Vasca*. Murió en Ezpeleta, el año 1930. Entre otros colaboradores que tuve en 1901, en Ligu de Zuberoa, figuró también el buen sacerdote Landerretche. Entonces aprendí de él varios proverbios que muchos años después había él de publicar, siendo ya académico vasco, y los di a la luz en el Diccionario. Pasan de 300 los proverbios que publicó en la revista *Euskera*. En el comienzo de este prólogo ha

nak ere badirala ikusi du irakurleak. Bi izkeradunak ere erakutsiak dira. Orain beki, Landeretxeren lan luze onen arauz beintzat, atsotitz igarkizunak ere baditugula. Gutxienez eun aipatu ditzaket, berak bilduak guziak. Iru baizik eztitut emen irakur araziko. Besteak len aipaturiko aldirokoan ditu irakurleak. 117-gařena: «Zakhuřak gathuari, gathuak buztanari» (1) (*L'histoire du Paradis terrestre*) dio gero Landeretxek, besterik bage. 118-gařen-an: «Khondüaren gañean pinterđina». Eta gainerakotzat: *Parum pro nihilo reputatur*. Guñia ezereztzat artzen dala esan nai du latinezko onek. 215-gařena: «Yaten den lekhuā aza eta arbi, eztaiteke izan etxegibela garbi». Eta beste iruskinik gaineratu bage «régime laxatif» dio berak. Beste atsotitz guziak bezala, igarkizun-antza kendu ta erderara itzuliz agertuak izango dira Busunarizko seme langile ta onarenak.

visto el lector que entre nuestros proverbios los hay también musicales. También se han dado a conocer proverbios bilingües. Ahora sepa que, siquiera conforme a este largo trabajo de Landerretche, tenemos también proverbios enigmas. Podría yo citar, por lo menos, un ciento, recogidos todos por él. Aquí no haré leer sino tres. Los demás los tiene el lector en la revista de que antes se ha hecho mención. El número 117: «El perro, al gato; el gato, al rabo» (1) (*Historia del Paraíso terrenal*). Sin otra cosa. El número 118: «Encima de la cuenta, media pinta». Y, por añadidura: *Parum pro nihilo reputatur*. Este proverbio latino significa que lo poquito se estima por nada. El número 215: «Allí donde se comen berzas y nabos, la parte trasera de la casa no puede estar limpia». Y, sin añadir otro comentario, «régimen laxativo» dice él. Lo mismo que todos los demás proverbios serán publicados los del activo y buen hijo de Busunaritz, quitándoles aspecto de adivanzas y traducidos al castellano.

\* \* \*

Badira Humboldt euskalzale gartsu ta euskalari argiak bildutakoak ere, oso guti. Itsasuko eřetore, laurogei urte beteak zituen Harambillet-en espainetatik ikasi zituen berak eta Berlingo Liburutegi aun-

Hay también unos poquitos recogidos por el entusiasta vascořilo y vascořologo ilustre Humboldt. Los aprendió de labios del cura de Itsasu, Harambillet, de ochenta años cumplidos, y los encontré yo en la

(1) Itzuli bage azaldu ditu goienak, ru-auck ere bai.

(1) Casi todos los números los ha expuesto sin traducción, también estos tres.



dian, 1908-gaŕen urtean, arkitu ta pozik biŕidatzi nituen nik.

XI. *Atsotitz itzultzaileak.*—Iru dira agirienak: Iturriaga, Hiribarren ta *Bilharia*. Lenengoak Españaiko esakuneak itzuli zituen; beste biak Frantziakoak. Iturriagarenak Donostiako *Euskal-Erriari* (laugarren urtean) argitaratuak izan ziran. Honabatzuk:

1. «Ardo purua ta baratzuri gordiña aiek egiten ditek mutil ariña» (página 144).

2. «Aurak ezpadu negaŕik, ez dik edango titirik» (pág. 144).

3. «Atsegin det, Aita, zatozela dantzara» (pág. 144).

4. «Bear yaio ta bear bizi, ez galdu ta ez irabazi» (pág. 144).

*Beartsu yaio ta beartsu bizi* itzulketa ohea izango zan.

5. «Berogei urtez goiti ezdezakala tripa busti» (pág. 144).

6. «Egizu on ezdakizula non» (página 240).

Itzez itz: «Haz bien no sabiendo dónde».

7. «Esak norekin abilen, esango diat nor aizen» (pág. 240).

8. «Ez katurik ez txakurik kolore onetakorik» (pág. 240).

9. «Katu maularia ez da izango eiztaria» (pág. 240).

Gran Biblioteca de Berlín, el año 1908, habiéndolos copiado gustosamente.

XI. *Traductores de proverbios.*—Tres son los más salientes: Iturriaga, Hiribarren y *Bilharia*. El primero tradujo proverbios españoles; los otros dos, franceses. Los de Iturriaga fueron publicados en *Euskalerria*, de San Sebastián, año cuarto. He aquí varios:

1.º «Vino puro y ajo crudo, hacen al mozo agudo». (Rodríguez Marín, *Más de veintitán mil refranes castellanos*.)

2.º «Niño que llora, no mama». (Rodríguez Marín, *ibíd.*, pág. 324.)

3.º «Me alegro, padre, que vengas danzando». (Rodríguez Marín, *ibídem*, página 302.)

4.º «Pobre nació, pobre me hallo; ni pierdo ni gano». (Rodríguez Marín ?)

Hubiera sido mejor traducción: *Beartsu yaio ta beartsu bizi*.

5.º «De cuarenta para arriba, no te mojes la barriga». (Rodríguez Marín, *ibíd.*, página 107.)

6.º «Haz bien y no sepas a quién». (Rodríguez Marín, *ibíd.*, pág. 219.)

Literalmente: «Haz bien no sabiendo dónde», poniendo *non* en vez de *norí*.

7.º «Dime con quién andas y te diré quién eres». (Conocidísimo.)

8.º «De ese pelo (color), ni gato ni perro». (Rodríguez Marín, *ibíd.*, página 109.)

9.º «Gato maullador, nunca buen cazador». (Rodríguez Marín, *ibíd.*, página 222.)



10. «Txakur zangaria, gutxitan ozkaria» (pág. 240).

11. «Otoitzlearen atean ez utzi garia kalean» (pág. 271).

12. «Zartuta sendatzen bazera, eun urtez biziko zera» (pág. 271).

13. «Zuenak izan zuen ta zartze-rako gordé zuen» (pág. 271).

Hiribarren apezaren atsotitz ta esakerak, askozaz geiago, *Gure Herriaren* oñi-artean argitaratuak izan dira, bere zortzi ta bederatzigaien urteetan. Gure lagun maite P. Lhande euskaltzainak ezagutarazi dizkigu. Yakingai auen yatoría zein dan onelaxe darakusku: «De toute évidence, ces proverbes, dictons et formules ont été composés par l'auteur lui même et quelquefois rémanies. Leur valeur folklorique est donc mince.»

*Bilharia*k argitaratu dituen atsotitzak eundik gora dira ta len nipuriko ilerokoan, *Gure Herrian*, dauzka irakurleak.

Bilhari ori bizi da ta nor dan yakin nai nuelarik bere beñiak Bayona-aldeko adiskide hati eskatu nizkion. «Bilhari nor den? Salatu behar othe dut?» «Ni naiz», erantzun zidan. Eta gainera: «Zenbeit erdaratik itzuli nituen, bertzeak nere buru ñikitik athera.»

Eñiarenak eztiralako eztira emen ageri izango: baina oso irakurgaiak baitira, non ediren ditzaken beki

10. «Perro ladrador, poco mordedor». (Rodríguez Marín, *ibid.*, página 365.)

11. «A las puertas del rezador, no tiendas tu trigo al sol». (Rodríguez Marín, *ibid.*, pág. 16.)

12. «El viejo que de sí cura, cien años dura». (Rodríguez Marín, *ibid.*, página 175.)

13. «Quien tuvo y retuvo, guardó para la vejez». (Rodríguez Marín, *ibidem*, pág. 435.)

Son mucho más numerosos los proverbios y modismos del sacerdote Hiribarren y han salido a luz en la revista *Gure Herria*, en sus años octavo y noveno. Nos los ha dado a conocer nuestro amado compañero el académico P. Lhande. El origen de éstos nos lo muestra así: «Évidentemente, estos proverbios, modismos y fórmulas han sido compuestos por el autor mismo y, a veces, retocados. Por lo mismo, su valor folklórico es pequeño.»

Los proverbios que ha publicado *Bilharia* son más de cien y los tiene el lector en la revista mensual antes citada, *Gure Herria*.

Vive el tal buscador, y queriendo saber quién era, pedí yo noticias suyas a un amigo de las inmediaciones de Bayona: «¿Quién es *Bilharia*? ¿Tendré que denunciarlo?» «Soy yo», me respondió. Y, además: «Algunos traduje del francés; los demás los saqué de mi cabecita.»

Por no ser del pueblo, no saldrán aquí a la luz; pero como son tan dignos de ser leídos, sepa el



Olaeta de Aramayona (Alaba)

irakurleak: Bigařen urteko 380 ta 381-gařen oñaldeetan batzuk; beste batzuk irugařen urteko, 49, 295, 615 ta 616-etan; gainerakoak laugařen urteko 128 ta 315-etan.

Bilhariak bere burua salatu duenez geroz, neroni ere zilegi izan bekit salatzea. Jean Elissalde apheza da, Azkaingo seme, Gerezieta Eretore yaun ta Euskaltzindiko Benjamin.

Voltaire zeritzaion idazle batek ere, *L'Interpect* izendun liburu batean gaskoin ta euskerazko atso-titz batzuk argitaratu zituan. Lyonen 1620-gařen urtean atera zuten liburu au. Julien Vinsonnek bere *Bibliographie de la langue basque*-ren 64

lector dõnde puede hallarlos: unos, en las páginas 380 y 381 del segundo año; otros, en las páginas 49, 295, 615 y 616 del tercero; el resto, en las páginas 128 y 315 del cuarto año.

Ya que el buscador se ha denunciado a sí mismo, permítaseme también a mí el denunciarlo. Es Jean Elissalde, sacerdote, hijo de Azkain; señor párroco de Guerezieta y Benjamín de la Academia de la Lengua Vasca.

También un escritor llamado Voltaire publicó unos cuantos proverbios gascones y vascos en un libro denominado *L'Interpect*. Este libro salió a luz en Lyon, el año 1620. Julien Vinson, en la página 64 de *Bibliographie de la langue basque*,



gañen ofialdean, liburu au aztertuz, dio «Je viens de faire remarquer qu'il n'y a point-là, en réalité, des proverbes basques recueillis dans le pays. Ce sont, au contraire, des proverbes, des adages, des sentences, qui faisaient parti du texte français et du espagnol dont s'est servi Voltaire et qu'il a traduit en basque. L'intérêt en est donc des plus mediocres.»

XII. *Gure atsotizlari egungoak.*—Urquiño da ezagunena. Euskalerian dan eta izan dan aldirokorik edere-na, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, 1907-gañen urtean berak sortu zuen; eta bere ofialdeetan argitaratu dituen lan askoren artean euskerazko atsotitz zar asko ta asko dira; ta banan banan aztertu ta bai alkañen artean ta bai beste izkeretako esakunez alderatu ditu.

Gaiñera oraino ilunpean zeuden atsotitz eder-mordo andiak, bere Aldiroko ofretantxe ezagutarazi dizkigu: Garibayrenak asko, Beltran de Salguisenak oro.

Beste gure atsotizlari egungo bat Intzako seme Damaso kaputxinoa da. Napañoan euskara bizi dan irixko geienetan eta Gipuzkoako batzuetan Yaunaren itza zabaltzen ari dan birtartean, eñiaren yakingaiak ugari bildu ta biltzen ditu: nire iztegian eztiran itz (Euskaltzaindiaren Iztegirako) batzuk, eta askozaz ugariago diran atsotitz ta esakerak. Gure aldiroko *Euskeran* orainarte 215

analizando este libro, dice: «Acabo de hacer notar que, en realidad, no hay en él proverbios vascos recogidos en el país. Son, al contrario, proverbios, adagios, sentencias que formaban parte del texto francés y español de que se sirvió Voltaire y que los ha traducido al vascuence. Su interés es, por lo mismo, de los más mediocres.»

XII. *Nuestros paremiólogos de hoy.*—El más conocido es Urquiño. Creó, en 1907, la más hermosa revista que existe y ha existido en Euskaleria: la *Revista Inter. de Estudios Vascos*. Y, entre los muchos trabajos que ha dado a luz en sus páginas, hay muchísimos viejos proverbios vascos, y él los ha examinado uno por uno, comparándolos tanto entre sí como con proverbios de otras lenguas.

Además, nos ha dado a conocer en esa su Revista multitud de hermosos proverbios que todavía estaban en la obscuridad; muchos de Garibay y todos los de Beltrán de Salguis.

Otro paremiólogo nuestro de hoy es el religioso capuchino Dámaso, hijo de Intza (AN). Mientras se ocupa en esparcir la palabra de Dios en la mayor parte de los pueblecillos navarros en que vive el vascuence, y en algunos pueblos de Guipuzkoa, ha recogido y sigue recogiendo documentos populares en abundancia: algunos vocablos (destinados al Diccionario de la Academia) que no

atsotitz ta 31 esakera argitaratu ditu.

Irugañen atsotitzlari bizi dana Auritzeko seme Fermin Irigaray yauna da. Eri diran giza ta emakumeai bezala, makalxo dugun gure Izkera maite urtetsu ta mendetsu oni indarra eman nairik aspaldi luzean ari da berau lanean. Donesteben 1923-gañen urtean Euskaltzaindiak izan zituen euskalegunetan atsotitz ta esakera mordo eder bat irakuri zuenango Udaletxean. Eta geroxeago, beste euskerazko lan batzuekin, *Birgañen Euskalegunetako itzaldiak* izendun liburu batean argitaratua izan zan bere lana. Ordura ezkerro Bayona-aldeko bi aldirokotan (*Gure Herria* ilerokoan eta asteroko *Eskualdunan*) yakingai politik ezagutarazi ditu: eta biltzailearen baimenaz, lendarik eztauzkadan atsotitz ta esakerak, liburu onetan ikusiko ditu irakurleak.

XIII. *Liburu onetako atsotitz guzien yatorria.*—Irakurleak 2936 atsotitz dauzka lan onetan. Beren aldakuntzetxoak, aipatuaren, eztitut kopuratu. Beretatik 889 dira begiz ikasiak, beste libururen batetik artuak; eta 2.047 dira eñari neronek (batez ere ene amari) belariz artuak. Idazle bakoitzaren izen ondoan era-

constan en mi Diccionario, y proverbios y modismos, que son muchos más. En nuestra revista *Euskera* ha publicado hasta ahora 215 proverbios y 31 modismos.

El tercer paremiólogo viviente es don Fermin Irigaray, hijo de Burguete. Hace ya mucho tiempo que trabaja en dar fuerzas, así como a hombres y mujeres enfermos, también a nuestra amada lengua, que, cargada de años y de siglos, la tenemos algo debilitada. En los días vascos que celebró la Academia de la Lengua Vasca, en Santisteban, el año 1923, leyó él en la sala del Ayuntamiento un buen número de proverbios y modismos. Y poco más tarde fué publicado su trabajo, con otros trabajos vascos, en un libro titulado *Discursos de los segundos días vascos*. Posteriormente ha dado a conocer curiosos documentos en dos periódicos de la parte de Bayona: en el mensual *Gure Herria* y en el semanario *Eskualduna*. Y, con permiso del colector, verá el lector en este libro reproducidos los proverbios y modismos que desde antes no figuran en mi colección.

XIII. *Origen de todos los proverbios de este libro.*—El lector tiene en esta obra 2.936 proverbios. Sus variantes, aunque las menciono, no las he numerado. De ellos, 889 han sido aprendidos a ojo, tomados de algún libro, y son 2.047 los que he aprendido del pueblo (especialmente de mi madre) al oído. Ahora mostra-



kutako dut orain zeinbat diran bere eskutiko esakuneak:

Salguis, 175; Inchauspe, 116; Duvoisin, 113; Landerretche, 95; Lope de Isasti, 69; Moguel, 49; Irigaray, 45; Elissanburu, 41; Darthayet, 39; Bela, 36; Uriarte, 32; Axular, 17; Intza, 10; Araquistain, 9; Garibay, 8; Haurmaite, 7; Segura, 7; Añibarro, 5; Iturriaga, 5; Humboldt, 5; Goyetche, 2; Aguirre, 1; Hiribarren, 1; Chaho, 1; Azkue (E. M.), 1.

XIV. *Zerengatik banatu diran sailka atsotitz auk.*—Atsotitzak agertzeko, beste edozein atsotitzlarik egin duena egin baneza, diran bezalakoak dirala, mordo andi baten azalduko banitu ¡nork izango luke beron artean begiak sartzeko gogo?

Beron ezagutzea eraztu nairik *sailka banatuak* agertzea buruak eman dit. Lenengo sailean *norbaitenak* erakutsiko ditut: A) Yaungoiko ta gurenen izendunak. B) Langintzadun gizonenak. D) Txefeni dagozkionak.

Urongo sailak abedezkoak dira: Bigarren sailean abere, arain, egazti naiz mamuen izendunak.

Irugarrenean *aldartezkoak*.

Laugarrenean gizonen *atz-begiak aipatzekoak*.

Bostgarrenean *eguratsezkoak*.

Seigarrenean *sukaldekoak*.

Zazpigarrenean *urietakoak*.

Zortzigarrenean *zarozkoak*.

